

## EMANDAKO ZERBITZUA

65. Zinemaldiak bi ezaugarri nagusi izan ditu: batetik, filmek oso harrera ona izan dute, bai ikusleen bai kritikarien eta komunikabideen artean –bertakoak eta nazioartekoak–; eta bestetik, Donostian zinema-industriaren presentziak hazten jarraitu du.

Akreditatu kopuruak handitzen jarraitzen du, industriako kideak gero eta gehiago direlako. Aurten, sail horrek jarduera berri bat abiatu du, Glocal in Progress, hizkuntza ez-hegemonikoetan egindako Europako zinema ardatz hartuta.

Baina, beharbada, Zinemaldia nolakoa den ondoen definitzen duen datua urtero zinema-aretoetara doan ikusle kopurua da. 2017an, berriz ere 174.000tik gora ikusle izan dira, 186.000 biztanleko hirian.

### Gogobetetze ratioak:

- Ondoren, Industriako gonbidatuei egindako inkestaren emaitzak ikus ditzakezue:

	<b>2017ko puntuazioa</b>
Guztirako puntuazioa:	8,54
Zinemaldiaren bideoteka	7,76
Lanbide Eremua	8,56
Koprodukzio Foroa	8,02
Mahai-inguruak	7,62
Zinema eraikitzen	7,19
Glocal in Progress	7,11
Industriaren komunikazioa	8,29

- Ikusleek bidalitako idatzizko erreklamazioen portzentajea saldutako sarrera kopuruarekiko % 0,05ekoa da.
- Kulturaren Behatokiak mila profesionalak baino gehiagok osatutako aditu talde baten artean egindako inkestaren arabera, Donostia Zinemaldia 2017ko Espainiako laugarren kultur jarduera baloratuena da, eta lehena, urteko garai jakin batean izaten direnen artean.